

FOMOINN MUSIKA LEHIAKETAREN OINARRIAK

Donostia Sustapena S.A. (aurrerantzean, Sustapena edo Donostia Sustapena) da Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietatea. Hiriko ekonomia eta enplegua bultzatzen dituzten proiektu berritzaileak sustatzea du helburu, betiere pertsonak erdigunean jarrita eta lankidetzako eredu bat sustatuta.

Musika Lehiaketa izeneko musika taldeen txapelketa FOMOINN Jaialdiaren esparruan gauzatuko da, Kursaaletan, Donostia Sustapenaren ekimenez. **FOMOINN Jaialdia XII. WeekINN Berrikuntzaren Asteko programazioaren barne dago. Ekimen horrekin berrikuntza eta ekintzailatza Donostiako herritarrei** modu erakargarrian **hurbiltzea lortu nahi da**, hiriko berrikuntza ekosistemari ikusgarritasuna ematearekin batera, esparruko eragile, sektore eta kolektiboen ikuspuntutik.

FOMOINN diziplina anitzeko jaialdi irekia da, talentu gaztea ezagutzera emateko eta konektatzeko pentsatua. Gazteek gazteentzat diseinatu duten programa horrek berrikuntza, sormena, teknologia eta aisialdia uztartzen ditu aukerak eta sareak sortzeko helburuarekin, aldi berean diziplina guztiei eta gazteei beraiei ikusgarritasuna emanda. Xede nagusia talentu gaztea ezagutzera eman eta bultzatzea da, horretarako berrikuntzaren, teknologiaren, sormenaren eta/edo artearen esparruko diziplina guztiei zabalik dagoen espazio bat eskainiz.

Jaialdiaren izena bi elementuren konbinazioa da: alde batetik, FOMO (*Fear Of Missing Out*, ingelesez, edo zer edo zer galtzearen beldurra) eta INN (*innovación/innovation* hitzen hasiera). Kanpo gelditzearen beldur hori eraldatuz, FOMOINN bultzada bihurtuko da: parte hartzeko, sortzeko eta konektatzeko gonbidapena.

Gauzak horrela, **FOMOINN** Musika Lehiaketa musikaren esparruko tokiko artista gazteak ezagutu eta haiei laguntzeko plataforma izango da, beren sormena jendaurrean agertu eta publiko berriekin konektatzeko aukera eskainiko diena.

1. LEHIAKETAREN XEDEA

FOMOINN Musika Lehiaketak tokiko musika talde eta bakarlariari lagundu eta ikusgarritasuna ematea du helburu. Xede nagusia sormenezko talentu berriari bultzada ematea da, ekimen berritzaile batekin, eta artista gazteenei ezagutzera emateko plataforma bat eskaintzea.

Musika horixe da hain zuzen: adierazteko, konektatzeko eta gertatzen zaiguna kontatzeko tresna bat, belaunaldi horrek bizitzen duena eta sentitzen duena partekatzeko eskura duen lengoia boteretsuenetako bat.

Horregatik luzatzen diegu deialdi hau talde eta artista gazteei; partaidetza modu berrien aldeko apustua egiteko eta talentu berriari espazioa emateko.

2. NORK PARTE HAR DEZAKE?

Lehiaketa edozein musika estilotako (pop, rock, rap, trap, folk, elektronikoa, metal musika, etab.) talde eta bakarlarietara zuzendua da. Musika estiloa ez da irizpide baztertzailerik izango.

Parte hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- **Bizilekua:** taldekideak edo bakarlaria **Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) egoiliarrak** izan beharko dira.
- **Adina:** 1990eko urtarrilaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) jaio izana, hau da, **16 eta 35 urte artekoak** izatea eskabidea aurkezteko momentuan.

Talde bateko kideren bat edo bakarlariaren bat adingabea izatekotan (18 urtetik beherakoa), ezinbestekoa izango da bere aita, ama edo legezko tutoreak sinatutako berariazko baimena aurkeztea, eskabidearekin batera, lehiaketan eta programaturiko den kontzertuan parte hartzeko.

Antolatzaileek eskubidea izango dute baimen hori emandako epe barruan aurkezten ez duten pertsonak baztertzeko.

- **Errepertorioa:** talde edo bakarlari bakoitzak **lau jatorrizko kanta dituen errepertorioa izan beharko du, jatorrizko letra eta musikarekin** eta haiek/berak interpretatzen duena/dutena. Aurkezten dituzten kantak norberarenak izango dira eta egiletza hori frogatu egin beharko da.
- Talde eta bakarlari berrien parte hartzea bermatze aldera, parte hartzaileek **ezingo dute inolako kontratu diskografikorik izan.**
- **Rider teknika:** izena ematean, talde edo bakarlariaren *rider* teknika aurkeztu beharko da, jaialdiko zuzeneko emanaldien produkzioarako oinarria izango dena.

Sustapenak taldeen eskura jarriko du zuzeneko kontzertuetarako behar duten oinarriko ekipamendu teknikoa.

Ezinbestekoa da parte hartzaileek ekipamendua muntatu eta desmuntatzeko ezartzen diren denborak errespetatzea. Denbora horiek ezingo dira 20 minututik gorakoak izan, ondoz ondoko kontzertuak antolatuko baitira. Horrela, ekitaldia

behar bezala garatuko dela eta talde guztiek gorabeherarik gabe jotzeko aukera izango dutela ziurtatuko da.

3. PARTE HARTZEKO MODUA

FOMOINN Musika Lehiaketan parte hartzeko, talde edo bakarlariak dagokien inprimakia bete beharko dute eta beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu.

1. Talde edo bakarlariaren **izen artistikoa**.
2. **Harremanetarako datuak** (harremanetarako pertsona, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia).
3. Kide bakoitzaren **izen-abizenak, NANA, jaiotze data eta bizilekua**.
4. Uneko erreperatorioko **kanten zerrenda** (lau jatorrizko kanta).
5. Plataforma digitaletarako estekak (Spotify, YouTube, Bandcamp, SoundCloud, Drive karpetara MP3, OGG edo WMA formatuan, etab.), talde edo bakarlariak hautatu dituen lau kanta entzun ahal izateko.
6. **Bideoklipetarako estekak** (halakorik badute).
7. **Entsegu baten grabaketaren bideorako esteka**.
8. Talde edo bakarlariaren **duela gutxiko argazkia**. Formatu bateragarriak: PNG eta JPG/PEG.
9. Talde edo bakarlariaren **rider teknikoa**. Antolatzaileok aztertuko dugu eskatu diren baliabideak eskura jartzeko aukera, gure erabilgarritasunaren eta gaitasun teknikoen arabera.
10. **Zinpeko adierazpena**.

Bideoetarako edo musikarako esteka guztiak aktibo egongo dira eta irisgarriak izango dira. Ez dira onartuko eskabide osatugabeak edo adierazitako formatuak errespetatzen ez dituztenak.

Izena eman duen talde edo bakarlariak oinarri hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko ditu ere.

Lehiaketan parte hartzea doakoa da.

4. IZENA EMATEKO EPEA

Hautagaitzak aurkezteko epea **2025eko irailaren 15etik urriaren 22ra** egongo da zabalik, jaialdiaren webgune ofizialean dagoen inprimakiaren bidez: <https://weekinn.fomentosansebastian.eus/es/>

Informazio behar, zalantza edo kontsulta gehigarriak izatekotan, Donostia Sustapenak pertsona guztien eskura jarriko du *fomentoss@donostia.eus* helbide elektronikoa. Komunikazio horietan, gai hau adierazi beharko da: FOMOINN MUSIKA LEHIAKETA

Eskatzaileek beren gain hartzen dute aurkeztu duten informazio eta dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, antolatzaileek aztertuko dituzte aurkeztu diren guztiak. Dokumenturen bat falta bada, posta elektronikoz eskatuko zaio interesdunari, eskabidean adierazitako helbide elektronikoa, falta diren datuak edo dokumentuak gehienez ere **bost (5) egun balioduneko** epean aurkeztu ditzan.

5. HAUTAKETA PROZESUA ETA LEHIAKETAREN FASEAK

1. FASEA: Talde edo bakarlari finalistak hautatzea

Dokumentazio guztia barne duten eskabide guztiak jaso ondoren, hiru talde edo bakarlari finalista hautatuko dira azaroaren 14tik 16ra egingo den FOMOINN Jaialdiko zuzeneko kontzertuetan parte hartzeko. Hautaketa egiteko aintzat hartuko dira originaltasuna, musikaren kalitatea eta estilo aniztasuna.

Epaimahai profesional batek hautatuko ditu hiru talde edo bakarlari finalistetako bi. Hirugarren finalista **herritarren epaimahai** batek (publikoaren botoa) hautatuko du. Herritarren epaimahaiaren bozketa 2025eko urriaren 23tik 27ra izango da.

Hiru finalisten zerrenda 2025eko urriaren 28tik aurrera argitaratuko da jaialdiaren kanal ofizialetan (<https://weekinn.fomentosansebastian.eus/es/>).

2. FASEA: FOMOINN Jaialdiko finala

FOMOINN Musika Lehiaketaren finala azaroaren 14tik 16ra egingo da, FOMOINN Jaialdian bertan. Hiru talde edo bakarlari finalistek kontzertu bat eskainiko dute zuzenean, 30 eta 45 minutu artekoa gutxi gorabehera. Epaimahai profesionala arduratuko da emanaldiak eta egindako lana baloratzeaz.

Ekitaldia baino 15 egun lehenago jakinaraziko zaizkie kontzertuaren eta sariak entregatzeko ekitaldiaren tokia, ordua eta intereseko gainerako datuak, bertaratu daitezten.

Emanaldi guztiak amaitu ondoren, epaimahai profesionala arduratuko da lehiaketaren palmaresa zehazteaz, eta lehenengo, bigarren eta hirugarren postuei dagozkien sariak esleituiko ditu.

6. EPAIMAHAIA ETA BALORAZIOA

Epaimahaikideak ikus-entzunezko esparruko, musikaren esparruko eta sormenaren esparruko profesionalak eta FOMOINN ekimenaren antolatzaileak izango dira.

Bereziki aintzat hartuko dira:

- Originaltasuna
- Musikaren kalitatea
- Estilo aniztasuna
- Eszenaratzea

Epaimahaiaren erabakiak **behin betikoak eta aurkaraezinak** izango dira.

7. SARIAK

Lehiaketako **garaileen zerrenda azaroaren 14tik 16rako asteburuan** iragarriko da, aurrerago zehaztuko dugun datan, emanaldi guztiak eta epaimahaiaren hausnarketa garaia amaitu ondoren.

1. saria

- Herritarrentzako kontzertu irekia FomolINN jaialdiaren ondorengo data batean.
- Argazkilaritza saio profesionala.

2. saria

- Herritarrentzako kontzertu irekia FomolINN jaialdiaren ondorengo data batean.

3. saria

- Argazkilaritza saio profesionala.

Parte hartzaileek halaberharrez parte hartu beharko dute zuzeneko kontzertuetan eta sariak entregatzeko ekitaldian.

7. JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

Talde eta bakarlari parte hartzaileek honako hauek bermatuko dituzte: (i) Lehiaketara aurkeztu dituzten musika eta/edo ikus-entzunezko lanen originaltasuna eta egiletza; (ii) lan horien gainerako jabetza intelektualeko eskubideen titularrak direla; eta (iii) lanek ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen, eta beren gain hartuko dituztela horrelako kasuetatik eratorritako erreklamazio posibleen erantzukizun guztiak, hartara Sustapena mota horretako erreklamazioetatik salbuetsita.

Lehiaketara aurkeztu diren musika eta/edo ikus-entzunezko lanen jabetzak eta horien gainerako jabetza intelektualeko ondare edukiaren eskubideek talde eta bakarlari parte hartzaileen titulartasunekoak izaten jarraituko dute.

Hala ere, talde eta bakarlari parte hartzaileek:

- (i) Sustapenari ustiatzeko lizentzia ez eskusiboa, doakoa eta besterenezina emango diote Lehiaketara aurkeztu dituzten ikus-entzunezko edukien gainean, horren barne direla edukiok ustiatzeko ahalmen guztiak, mundu osoan eta denbora mugarik gabe; hori guztia Sustapenak erabat edo partzialki egokitu, erreproduzitu eta hedatzeko aukera izan dezan, betiere merkataritzakoak ez diren xedeetarako, gaur egun ezagutzen den eta erakundeak FOMOINN Jaialdia eta Lehiaketa sustatu eta hedatzeko erabiltzen duen edozein euskarriaren bitartez, hala nola irrati edo telebista, erakundearen gizarte sareetako kontu edo profilak eta edukiak Internet bidez banatzeko ikus-entzunezko plataformak, eta/edo erakundearen kontrolpeko webguneak.
- (ii) Baimena ematen diote Sustapenari Lehiaketaren finalaren esparruan egiten duten beren musika lanen jendaurreko emanaldia edozein ikus-entzunezko euskarritan finkatzeko eta ondoren erreproduzitu, jendaurrean erakutsi eta banatzeko; hori guztia Sustapenak, bere kabuz edo hirugarrenen bitartez, emanaldi horiek edozein ikus-entzunezko komunikabidetan eta denbora mugarik gabe emateko eta/edo ondoren banatzeko egokiak diren baldintzetan, betiere merkataritzakoak ez diren xedeetarako eta FOMOINN Jaialdia eta Lehiaketa sustatu eta hedatzeko (horren barne direla irrati edo telebista, erakundearen gizarte sareetako kontu edo profilak eta edukiak Internet bidez banatzeko ikus-entzunezko plataformak, eta/edo erakundearen kontrolpeko webguneak).

Musika lanen bat eskubideak kudeatzeko erakunde kolektiboetan (SGAE edo antzekoak) erregistratuta badago, kontzertuak egin aurretik jakinarazi beharko zaie hori antolatzaileei.

8. OINARRIAK ETA BETEBEHARRAK ONARTZEA

FOMOINN jaialdian eta hortik eratorritako beste jarduera batzuetan parte hartzeko hautatzen badituzte, talde edo bakarlariak beren gain hartuko dituzte indarreko legeriaren arabera dagozkien legezko eta zerga arloko betebeharrak, horien barne direla, egokia denean, Gizarte Segurantzako alta eta aplikatzekoak diren zerga atxikipenak.

Antolatzaileek oinarri hauetan aldaketak egiteko eskubidea izango dute, baldin eta lehiaketa hobe kudeatu eta garatzeko badira, eta behar bezala jakinarazi beharko dizkiete aldaketa horiek parte hartzaileei kanal ofizialen bitartez.

FOMOINN Musika Lehiaketan parte hartzean, izena emandako pertsona guztiek erabat eta baldintzarik gabe onartuko dituzte oinarri hauek, eta baita prozesuan zehar epaimahaiak eta antolatzaileek hartzen dituzten erabakiak ere. Antolatzaileek oinarrietan aurreikusi ez diren egoerak ebazteko ahalmena izango dute, eta ebazpena modu egokian jakinaraziko diete parte hartzaileei.

Lehiaketan parte hartzen duten taldeek irudi, interpretazio eta egile eskubideen titularrak direla bermatzen dute, eta baimena ematen diote Donostia Sustapenari aurkeztu dituzten lanak Internet bidez eta/edo gizarte sareetan erreproduzitzeko, sustapen helburuetarako, eta baita irratian, telebistan edo beste edozein komunikabidetan ere, horren erantzukizuna beren gain hartuta eta lehiaketaren antolatzaileak erantzukizun orotik edo hirugarrenen erreklamazioetatik salbuetsita.

Talde edo bakarlari finalistek 30 eta 45 minutu inguruko emanaldi bat egiteko konpromisoa hartzen dute, azaroaren 14tik 16ra antolatuko den FOMOINN Jaialdian.

9. OHAR OROKORRAK

9.1 ERANTZUKIZUN SALBUESPENA

- Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko lehiaketako parte hartzaileen profiletan argitaratzen diren materialetako eduki, letra, testu, irudi, iritzi eta iruzkinen inguruan.
- Donostia Sustapena ez da egilearen obraren erantzule izango beste egile batek kopiatu edo erreproduzitzen badu. Kantak barne dituzten materialak bidaltzen dituen pertsona egilea dela eta jatorrizko materialak direla ulertuko da. Nolanahi ere, lanaren erantzulea izango da jatorrizko egilearen aurrean erantzun beharko duena. Lanen bat plagioa delako edo izan litekeelako susmoa izatekotan, automatikoki baztertuko da.

- Donostia Sustapenak soinu- edo irudizko materialak ez onartzeko eskubidea izango du baldin eta moralaren eta ordena publikoaren aurkakoak badira, hirugarrenen intimitaterako, ohorerako eta norberaren irudirako eskubideak urratzen badituzte edo, adibide moduan eta mugarik gabe, adierazpen arrazistak, sexistak, homofoboak eta/edo diskriminatzaileak barne badituzte, eta berariaz baztertu egingo dira indarkeria eta jokabide antisozialak goraipatu edo sustatzen dituztenak. Ondorioz, profilean argitaratuko diren materialek ezingo dituzte inola ere sustatu jardunbide arriskutsuak edo legez kontrako jokabideak, ez eta estupefazianteen erabilera eta edozein motatako abusu, zuhurtziagabekeria, zabarkeria edo jokabide erasokorrak ere. Oinarri hauetan ezarri diren baldintza guztiak betetzen ez dituzten materialak lehiaketatik kanpo utziko dituzte automatikoki antolatzaileek antzematen diren momentuan bertan.
- Donostia Sustapena ez da erantzule izango Interneteko zerbitzuaren edo akats informatikoen ondorioz aurkeztutako lanek sufritzen dituzten kalte edo galerengatik. Era berean, ez da erantzule izango ere eskatzen diren datuekin batera bidali diren bideo, maketa eta gainerako materialak adierazitako helbidera iristen ez badira edo bidalketak beharrezkoak diren datu pertsonalak eta lana barne ez baditu.
- Parte hartzaileak materialen egiletza eta originaltasunaren erantzule izango dira Donostia Sustapenaren aurrean, erantzukizun osoa beren gain hartuta, eta Donostia Sustapena kalterik gabe utziko dute hirugarrenek zentzu horretan aurkezten duten edozein erreklamazioaren kasuan, horren barne direla ohoreari, intimitateari, irainei eta kalumniei, irudi eskubideari edo difamazioztat edo lizuntzat har daitezkeen adierazpenei buruzko legeria ez betetzearen ondoriozko erreklamazioak.

9.2 ADINGABEEN PARTE HARTZEA

Hautatu den talde bateko kideren bat edo bakarlariren bat adingabea izatekotan (18 urtetik beherakoa), ezinbestekoa izango da bere aita, ama edo legezko tutoreak sinatutako berariazko baimena aurkeztea, eskabidearekin batera, lehiaketan eta programatuko den kontzertuan parte hartzeko.

Baimen hori jaialdian parte hartzeko halabeharrezko baldintza izango da.

Antolatzaileek eskubidea izango dute baimen hori emandako epe barruan aurkezten ez duten pertsonak baztertzeko.

10. DATUAK BABESTEA ETA IRUDI ESKUBIDEAK

Indarrean dagoen datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da zeuk emandako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa jardunda. Informazioa Donostia Sustapena, S.A. sozietateak kudeatuko du, tratamenduaren eragilea den heinean.

Tratamenduaren xedea da FOMOINN Musika Lehiaketan izango duzun parte hartzea izapidetu eta kudeatzea.

Tratamenduaren legitimotasun oinarriak hauek dira: Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 6.1.b) artikulua ("Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko", oinarri arautzaileak onartzea) eta 6.1.e) artikulua ("Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko"), 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da, eta informazio hori ez emateak edo datu okerrak emateak eskabidea kudeatzea galaraziko du.

Ez da aurreikusi hirugarrenei zuzendutako datuen komunikazio gehigarririk, legezko betebeharririk izan ezean, ez eta datuen nazioarteko transferentziarik ere.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gordeko dira jaso ziren helburua betetzeko beharrezkoa den denboran zehar eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizun posibleak argitzeko beharrezkoa den denboran zehar. Artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Interesdunek atzipen, zuzenketa eta ezabaketa eskubideak baliatu ahalko dituzte, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako gainerako eskubideekin batera, hala dagokienean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren aurrean, helbide honetan: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia / San Sebastián.

Norberari dagozkion eskubideak baliatzean behar bezalako arreta ez jasotzekotan, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua - 01008 Gasteiz. Hala ere, aldez aurretik eta hautazko moduan, Donostiako Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko aukera izango du interesdunak: dbo@donostia.eus.